

~ N ETA LL'REN ARAZOA

PALMI'k, aldizkari onen 18n. zenbakian, Urtarrilla 1994, N eta LL aitatu ditu eta ez du arrazoirik falta. Bi izki oieri ez diete pakea eman eta banatu dituzte, I eta N alde batetik eta I eta L bestetik.

Gure erritik at ez dute era berdiña erabili: N'ri Y bat atzetik, edo besteez, berriz, N'ri G bat aurretik. Ez datoz Euskaltzaindiarekin ez ados eta ez atres. "Bakoi-tzak berea, Jainkolegea", dio esaera zaar batek: Frantziak, Kataluñak eta Euskaltzaindiak, bakoitzak berea. Nungo Batasuna ote da?

Aldaketa bat egitekotan, atze-atzeko, erromatarren garaiko lege zaarretara biurtzea zan, legezko. An daukagu Ñ' ren jatorria: bi N dira Ñ' ren jatorria. Badago erromatarren dokumentu bat, Aragoi inguruko gudariak buruzkoa. Izen zerrenda bat aitatzen da eta bertan dago gureraño etorri dan izen au, Ennecus Enneconis, Eñeko Eñekorena. Orixe zan Loiola'ko Iñigoren izena: Eñeco eta ortik atera zuten bere familian Iñigo, Eñeco baiño biuñago; bera bait zan etxeko amairu seme-alabeen artean, umerik txikiena.

Adituta neukan Ñ' ren aldaketa, ordenagailluak


N'rik ez zutelako, egin zala; aitzakia, beintzat, ori izan zan. Españarrak lortu dute N ordenagailluetan sartzea eta alde orretatik ez dago gaur arrazoirik.

N eta LI izkiak erdibitzeak zailtasunak eta naasteak besterik ez ditu sortu. Orain "pilak" edozertarako erabiltzen dira; pillatu ere egiten dira. Pilak pillatzekoan sortzen dira koskak eta eragozpenak, orixe idaztekoan...

Naasteak sortzen dira, askotan I eta N bakarka aroskatzen bait dituzte, N aroskatu bearra. Berdin berdin gertatzen da I eta L'rekin, "langile" ez dute "langille" aroskatzen, "langi-le" eta "langi-leria" baizik. Okerkeri oiek sortzen dira Ñ eta L'l' dun berbetan, I bat aurretik duenean. Orduan bear luteke bi I ipiñi N eta L' ren aurean; baña, au ez du iñork egiten...

Izan ere, gauzak erreztu bearrean, zaildu, gaixtu eta naastu egin bait ditu "fija, limpia y da esplendor" egin bear duen "Real Academia del Euskera" erakunde zoragarriak.

A.A.A.



DEABRUAK OSTUTAKO URTEAK

Puxana tar Basilio adiskideak liburu irakurgarri bat idatzi dausku. Ez da lenengoa eta ez al da izango azkenengoa be.

Bartsolaria dogu Basilio, baiña liburu au geiena itz lauz idatzia da. Tarteka ainbat bertso edo olerki dauzala.

Gudaldiko joan-etorriak ditu gai liburu onek. Zenbat jakingarri dagozan or bazterretan agirian ipiñi bearrekoak, urteen isiltasunean lotan! Ondo egiña da ba Basilio'k egin dauana: Berak ikusitako gauzak beste batzuri agertu, erakutsi.

Erri asko gogoratzen dira liburu onetan: Elgeta, Legutiano, Ermua, Durango, Zeanuri, Euba, Artea, Zeberio, Laiñomendi, Bilbao, Enkarterria ta Santander-aldea. Zaragoza'ra ta Andaluzia'ra be eltzen jaku egazkada luzeetan. Eta dana gudaldiko ibillaldi samiñak gogoratzen.

Irakurri daigun gure Basilio' ren liburu au. Gauza asko gogoratu-ko dauskuz bere adiñeko edo gazteago garanoi eta bere euskera errez eta jatorrak erri-euskera sakontzen lagunduko dausku.

OLAZAR'tar Martin'ek